# ERNE!
# ¡ATENCIÓN!

**COVID-19ak eta haren zabalpenak eragindako arazoen ondorioz, agenda honetan jasotako zenbait jarduera bertan behera geldi litezke (kasurik onenean, jarduerak atzeratu egingo dira). Aldaketa guztien inguruko informazio puntuala www.cristinaenea.eus webgunean eta fundazioaren sare sozialetan aurkituko duzue. Barkatu eragozpenak.**

Debido a los problemas originados por el COVID-19 y su propagación, varias de las actividades recogidas en esta agenda podrían ser canceladas (en el mejor de los casos, las actividades se aplazarán). Tendréis información puntual sobre todos los cambios en la web www.cristinaenea.eus y en las redes sociales de la fundación. Disculpad las molestias.



cristina enea
FUNDAZIOA

# AGENDA 2020

## UDABERRIA
## PRIMAVERA

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

# Martxoa Marzo

**16**

**17**

**18**

**19**

**20**

**21**

**2050, Klimaren (ez) Aldaketaren urtea**
2050, el año del (no) Cambio Climático

**22**

**23**

**24**

***Gazteria Europako ingurumen politiken aurrean. Europako gazteen kezkak, sentimenduak eta ideiak* argitalpenaren aurkezpena**
Presentación de la publicación *La juventud ante las políticas europeas de medio ambiente. Preocupaciones, sentimientos e ideas de jóvenes europeos*

**25**

AGORA K2050. Cumbres climáticas. ¿Y ahora qué?

**26**

**27**

**Uraren zauriak**
Las heridas del agua

**28**

**29**

**Orain hotz, orain bero; Planeta dago ero!**

**30**

**31**

**Urtaroko pieza: Añarberen bonba**
La pieza de la estación: la bomba del Añarbe

**ERAKUSKETAK** EXPOSICIÓNES
**HITZALDIAK** CONFERENCIAS
**IKASTARO ETA TAILERRAK** CURSOS Y TALLERES
**ZIKLO ETA PROIEKZIOAK** CICLOS Y PROYECCIONES
**IRTEERAK** SALIDAS
**BESTEAK** OTROS

# Apirila Abril

**01**
**Txoriak, gure lagunak**
Nuestros amigos los pájaros

**02**
**Dimentsioak – 3Dtik 2Dra**
Dimensiones – del 3D al 2D

**03**

**04**
**Uliako ekosistemen zerbitzuak**
Servicios de los ecosistemas de Ulía

**05**
**Orientazio jarduerak. Oinez!**
Actividades de orientación. ¡A pie!

**06**

**07**
**Txanogorritxu Urgullen**
Caperucita en Urgull

**08**
**Ni, euri tanta banintz...**
Si yo fuera una gotita...

**09**
**Altxorraren bila**
En busca del tesoro

**10**
**Eskuz egina**
Hecho a mano

**11**
**Zuhaitzei eskerrak!**
¡Gracias a los árboles!

**12**
**Izadi Kapitaina**
Capitán Izadi

**13**
**Ulia Ezagutu!**
¡Conoce el parque!

**14**
**Urgulleko gynkana erraldoia**
La gynkana gigante de Urgull

**15**
**Antzerkia** Teatro
***Ingurumena zaindu***
**Potxin eta Patxin**

**Ikusi makusi, zer ikusi?**
Veo, veo, ¿qué ves?

**16**

**17**

**18**

**19**

**20**

**21**
**Art Break**

**22**

**23**

**24**

**25**

**26**
**Bihotz Inguru baso txangoak**
Excursiones por el bosque
**Arditurri (Oiartzun)**

Las cuatro estaciones
de Crisitina Enea: primavera

**27**

**28**
**Baratze ekologikoa**

**29**
Huerto ecológico

**30**

**ERAKUSKETAK** EXPOSICIONES
**HITZALDIAK** CONFERENCIAS
**IKASTARO ETA TAILERRAK** CURSOS Y TALLERES
**ZIKLO ETA PROIEKZIOAK** CICLOS Y PROYECCIONES
**IRTEERAK** SALIDAS
**BESTEAK** OTROS

# **Maiatza** Mayo

**01**

**02**

**03**
**Urumea ibaitik jaitsiera kanoan**
Descenso en canoa por el Urumea

**04**

**05**
**Baratze ekologikoa**

**06**
Huerto ecológico

**07**
AGORA K2050. Animales climáticos

**08**
**Hiriko Kirol Parkea – Kulki**

**09**
**Añarbeko urtegira bisita**

**Bertako tomate barietateen mintegi banaketa**
Reparto de plantel de variedades locales de tomate

**Bizipenen mapa**

**10**
Visita a la presa de Añarbe

**11**

**12**
**Baratze ekologikoa**

**13**
Huerto ecológico

**14**

**15**

**16**

**17**
**Bertako tomate barietateen mintegi banaketa**
Reparto de plantel de variedades locales de tomate

**Cristina Eneako lau urtaroak: udaberria**

**Urumea ibaitik jaitsiera kanoan**
Descenso en canoa por el Urumea

**18**

**19**
**Baratze ekologikoa**

**20**
Huerto ecológico

Curso Wikiloc (GPS) para ciclistas y caminantes

**21**

**22**

**23**
**Bihotz Inguru baso txangoak**
Excursiones por el bosque
**Jaizkibel**

Curso Wikiloc (GPS) para ciclistas y caminantes

**Ulian margoekin jolasean**
Jugando con pinturas

**24**
**Orientazio jarduerak. Bizikletan!**
Actividades de orientación. ¡En bicicleta!

**25**

**26**
**Baratze ekologikoa**

**27**
Huerto ecológico

**28**

**29**

**30**
Visita a la presa de Añarbe

**VII Urumea Blues Festibala**
VII Festival Urumea Blues

**31**
**Añarbeko urtegira bisita**

**Baso-bainua Ulian**
Baño de bosque en Ulía

**Urumea ibaitik jaitsiera kanoan**
Descenso en canoa por el Urumea

---

**ERAKUSKETAK** EXPOSICIONES
**HITZALDIAK** CONFERENCIAS
**IKASTARO ETA TAILERRAK** CURSOS Y TALLERES
**ZIKLO ETA PROIEKZIOAK** CICLOS Y PROYECCIONES
**IRTEERAK** SALIDAS
**BESTEAK** OTROS

# Ekaina Junio

01

02

03

04

05

06

**Hegaztien lumetan (migrazioaren gynkana)**
Viajando como aves (gynkana migratoria)

07

Mapa de vivencias

08

09

10

11

12

13

**Loiolako araztegira bisita**

**Baso-lagunekin txangoa**
Excursión en buena compañía

14

Visita a la E.D.A.R. de Loiola

**Urumea ibaitik jaitsiera kanoan**
Descenso en canoa por el Urumea

15

16

17

18

19

20

Visita a la presa de Añarbe

21

**Añarbeko urtegira bisita**

22

23

24

25

26

27

28

**Orientazio jarduerak. Oinez!**
Actividades de orientación. ¡A pie!

29

30

**ERAKUSKETAK** EXPOSICIONES
**HITZALDIAK** CONFERENCIAS
**IKASTARO ETA TAILERRAK** CURSOS Y TALLERES
**ZIKLO ETA PROIEKZIOAK** CICLOS Y PROYECCIONES
**IRTEERAK** SALIDAS
**BESTEAK** OTROS



**AMABITXIA**MADRINA

# ATZEGI

**60 urte daratzagu lanean adimen desgaitasuna duten pertsonak gizarte inklusibo baten parte izan daitezen. Atzegi Elkartearen eta hura osatzen duten familien eguneroko lana da Atzegizaleak lortzea, herritarrak sentsibilizatzea eta adimen desgaitasuna daukaten pertsonek dauzkaten gaitasunak ikustaraztea.**

**Horregatik iruditzen zaigu azpimarratzekoa Cristina Enea Fundazioarekin sinergiak sortzea; alde batetik, Donostian finkatuta eta ezaguna den fundazio batek adimen desgaitasuna duten pertsonei ere euren lekua utzi dielako; bestetik, Atzegiko pintura tailerreko ikasleei euren artea erakusteko eta horren balioa nabarmetzeko aukera eman dielako.**

**Pintura tailerra Atzegiko kultur ekintzen programan kokatzen da. Horri esker, adimen desgaitasuna daukaten pertsonek nahi dituzten zaletasunak landu ditzakete, interesa duten gauzetan trebatu eta, gainera, euren aisialdia aprobetxatzen dute. Horretaz gain, euren lana erakusketa batean jartzen badute, egiten dutena ikustarazteko bide ezinhobea da, euren gaitasunak eta artea gizarte osora iristeko.**

Llevamos 60 años trabajando para que las personas con discapacidad intelectual sean parte de una sociedad inclusiva. El trabajo diario de la Asociación Atzegi y de las familias que la conforman es conseguir Atzegizales, sensibilizar a la ciudadanía y visibilizar las capacidades de las personas con discapacidad intelectual.

Por ello, nos parece reseñable conseguir sinergias con entidades como Fundación Cristina Enea; por un lado, porque una fundación reconocida y ubicada en San Sebastián le ha cedido un espacio también a las personas con discapacidad intelectual; por otro lado, por ofrecerles a las personas que participan en los talleres de pintura de Atzegi la oportunidad de mostrar su arte y resaltar su valor.

El taller de pintura de Atzegi se enmarca en su programa de actividades culturales y de aprendizaje. Gracias a ello, las personas con discapacidad intelectual pueden desarrollar sus aficiones, se pueden formar en temas que les interesan y, además, aprovechan su tiempo libre. Del mismo modo, mostrar su trabajo en una exposición, es una manera inmejorable de visibilizar lo que hacen, trasladando sus aficiones y su arte a toda la ciudadanía.

**ATZERATUTA**
APLAZADA

21 > 29 **MARTXOA** MARZO



# 2050, Klimaren (ez) Aldaketaren urtea
## 2050, el año del (no) Cambio Climático

**Erakusketa txiki bat da, Donostiako Ingurumen Baliabideen Etxean jarriko dena, non Klima-Aldaketaren aurrean garaiz jarduten ez badugu Donostiako ingurumenean, gizartean eta ekonomian zer aldaketa gertatuko diren aztertzen den, eskenatoki distopikoen ikuspuntuen bidez. Proposamena ironia finetik abiatzen da, sentsibilizaziotik aktibaziora pasatzeko. Asteklima, Euskadiko Klima-Aldaketaren Astearen barruan txertatutako jarduera.**

Se trata de una pequeña muestra que se instalará en el Centro de Recursos Medio Ambientales de San Sebastián, donde se explora, a través de la proposición de escenarios distópicos, la alteración que se producirá en la ciudad de San Sebastián desde una perspectiva ambiental y socio-económica si no actuamos a tiempo frente al Cambio Climático. Una propuesta que parte de la fina ironía para pasar de la sensibilización a la activación. Actividad enmarcada dentro de la Semana de Cambio Climático de Euskadi, Asteklima.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea



ASTEKLIMA 2020
Euskadiko Klima Aldaketaren Astea
Semana del Cambio Climático de Euskadi

27 MARTXOA MARZO > 14 EKAINA JUNIO

ATZERATUTA
APLAZADA

ERAKUSKETAK
EXPOSICIONES

# **Uraren zauriak** Las heridas del agua

*Ura izarren hautsa da*

**Ura eta karbonoa, bizitzaren elementu nagusiak, izarretatik datoz, eta uraren zikloetatik datoz gaur egun izarrei begira dauden izaki bizidunak. Eskasia edo gabezia horrek berekin dakartza desberdintasuna eta heriotza, eta historikoki zientzian, pentsamenduan eta artean egon da, eduki sinboliko eta estetiko garrantzitsu batekin.**

**Izaki bizidunen ia laurdena uretakoak dira, eta horietako gehienen gorputzaren ehuneko 70 baino gehiago urak osatzen du. Planetaren hiru laurdenak urez estalita daude, eta gaur egun urak duen banaketak eta itsas korronteek, lurreko bizitza, urtaroak eta klima baldintzatzen eta erregulatzen dituzte.**

**Gaur egun adostasun handia duten ikerketa zientifikoek lurra epe ertainean berotzea aurreikusten dute, giza jarduerak sortutako $CO_2$ eta metano atmosferikoa handitzearen ondorioz. Milioi bat $km^2$ inguru izotzik gabe geratuko lirateke, eta metro bat inguruko itsas mailaren igoera progresiboa eragingo lukete. Tenperaturak gora egingo luke, lurraren zati handi bat bizigaitz bihurtzeraino.**

***Uraren Zauriak* bizitzarako funtsezkoa den elementu horren inguruan hiru artistak egindako proposamena da. Juan Varelak zientziara hurbilduz, Iraida Canok poesiaren edertasunetik abiatuta eta Trinidad Irisarrik soinu konposiziotik, bizi garen munduari bakarka eta kolektiboki eragiten ari garen kalteaz duten ikuspegia aurkezten digute.**

*El agua es polvo de estrellas*

El agua y el carbono, los principales elementos de la vida, provienen de las estrellas, y de ciclos del agua dependen los seres vivos que hoy miran a las estrellas. Su escasez o su falta llevan implícita desigualdad y muerte e históricamente ha estado presente en la ciencia, en el pensamiento y en el arte, con un importante contenido simbólico y estético.

Casi la cuarta parte de los seres vivos son acuáticos y el cuerpo de la mayor parte de ellos está formado por más de un 70 por ciento de agua. Las tres cuartas partes del planeta están cubiertas por agua, y su distribución actual y las corrientes marinas, condicionan y regulan la vida en la tierra, las estaciones y el clima.

Estudios científicos sobre los que existe hoy día amplio consenso, prevén un calentamiento de la tierra a medio plazo, debido al aumento del $CO_2$ y el metano atmosféricos generados por la actividad humana. Cerca de un millón de $km^2$ quedarían libres de hielo y provocarían una subida progresiva del nivel del mar cercana a un metro. Las temperaturas ascenderían hasta hacer inhabitable una gran parte de la tierra.

*Las Heridas del Agua* es la propuesta de tres artistas sobre este elemento esencial para la vida. Juan Varela acercándose a la ciencia, Iraida Cano partiendo de la belleza de la poesía y Trinidad Irisarri desde la composición sonora, nos presentan su visión del daño que individual y colectivamente estamos produciendo al mundo que habitamos.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

# Urtaroko pieza: Añarberen bonba
# La pieza de la estación: la bomba de Añarbe

**_Urtaroko pieza_ izeneko ekimen hau, Cristina Enea Fundazioko erakusketa proiektuetako programaren barruan integratzen dena, Gipuzkoako zientzia eta kultur erakundeetako bildumetan ingurumenarekin eta zientziarekin erlazionatutako piezak ikusgai jartzean datza.**
**Fundazioak, aukeratutako erakunde desberdinei beren bildumetako pieza bat Cristina Eneara ekartzea eskaintzen die; urtaro bakoitzetik erakunde bati. Piezek ingurumenarekin eta zientziarekin erlazionatutakoak izan behar dute eta edozein tipologiakoak izan daitezke. 2020ko udaberriko pieza, Donostiako uren ardura duen Añarbeko Urakek gordeta duen ur bomba handi bat da.**

Esta inciativa llamada *La pieza de la estación,* que se integra dentro del programa de proyectos expositivos de Fundación Cristina Enea, consiste en la exposición de piezas relacionadas con el medio ambiente y la ciencia de colecciones de instituciones científicas y culturales de Gipuzkoa.
La fundación ofrece a instituciones seleccionadas la opción de exponer una de sus piezas en Cristina Enea. La pieza debe estar relacionada con el medio ambiente y la ciencia y puede ser de cualquier tipología. La pieza correspondiente a primavera de 2020, es una gran bomba de agua de la responsable de las aguas de Donostia, Aguas del Añarbe.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea



# Txoriak, gure lagunak
# Nuestros amigos los pájaros

**Atzegi Elkarteko pintura tailerra ikasturtean zehar hirian kezkatzen dizkien gaien inguruan lanean aritu da. Landu dituzten gaien artean, Donostiako txolarreen egoeraren inguruan aritu dira. Hiriak, pixkanaka, naturari lekua kentzen dio eta gero eta berdegune gutxiago daude naturarentzat hiriguneetan.**
**Horren ondorio bat da txolarreak desagertzen ari direla Donostian; gero eta gutxiago daude hirian eta Atzegiko pintura tailerra kezkatuta dago honen inguruan. Horregatik, *Txoriak, gure lagunak* erakusketa sortu du; honekin, hegazti horiek gero eta gutxiago ikusten ditugula azpimarratu nahi du taldeak eta aldi berean, hiritarrak horren inguruan pentsatzera bultzatu nahi ditu. Hau guztia erakusteko, Cristina Enea da leku aproposena, hirigunean naturak daukan arnasgune handi bat baita.**
**Erakusketa hau hogei obra inguruk osatzen dute eta Atzegiko pintura tailerreko parte hartzaileek egin dituzte, guztiak adimen desgaitasuna duten pertsonak. Margolanak banaka eginda daude, baina euren arteko elkarlan dinamikak ere sortu dira kasu askotan.**

El taller de pintura de la Asociación Atzegi ha trabajado durante este curso en temas que le interesan o le preocupan de la ciudad. Uno de los temas en los que ha reparado es la situación de los gorriones en Donostia. La ciudad, poco a poco, se está comiendo la naturaleza, y queda cada vez menos espacio verde en las ciudades.
Una de las consecuencias de esto es la desaparición de los gorriones en Donostia; cada vez hay menos y es un tema que preocupa al grupo de pintura de Atzegi. Por este motivo, han creado la exposición *Nuestros amigos los pájaros;* con esta muestra quieren dar visibilidad a estas aves que cada vez se ven menos en nuestras calles y que la gente se ponga a reflexionar acerca de lo sucede. Para mostrar esto, Cristina Enea es un lugar idóneo, debido a que es una zona dentro de la ciudad en la que la naturaleza predomina.
La exposición está formada por una veintena de obras creadas por participantes de las clases de pintura de Atzegi, todas ellas personas con discapacidad intelectual. Los dibujos son creados de manera individual, aunque en muchos se han creado dinámicas de colaboración.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea



02 **APIRILA** ABRIL > 21 **EKAINA** JUNIO

# Dimentsioak – 3Dtik 2Dra
## Dimensiones – del 3D al 2D

**2011n Donostian izan ziren eurite handiek Urumea ibaiaren beheko arroan eragin berezia izan zuten, batez ere Donostiako Martutene eta Loiola auzoetan. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak, urtero ondare-ikerketara bideratutako ildoaren barruan, kontuan hartzen ditu lurralde historikoan egiten diren proiektu kulturalak eta/edo urbanistikoak, eta lurraldea eta haren elementuak ezagutu eta dokumentatzeko egiten duen lana areagotzen du. Urumearen ertzetako lanek eta eraldaketek bultzatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentua Asier Agirresarobek, Josu Tellabidek eta Ondartez S.L.k (Beatriz Herreras eta Maria Jose Sagarduy) aurrera eraman zuten inguruko kultur ondarearen dokumentazio eta katalogazio lana enkargatzera. HidroLogikak2020 proiektuaren barruan kokatzen den erakusketa hau, 2014an entregatutako *Urumeako arroaren kultura-paisaia* izenburuan duen lan honetan oinarritu da.**

Las fuertes lluvias que se produjeron en Donostia en 2011 afectaron de forma especial a la cuenca baja del río Urumea, sobre todo en los barrios donostiarras de Martutene y Loiola. La Dirección General de Patrimonio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, dentro de la línea destinada anualmente a la investigación patrimonial, tiene en cuenta los proyectos culturales y/o urbanísticos que se llevan a cabo en el territorio histórico e intensifica su labor en la documentación y conocimiento del territorio y sus elementos. Las obras y transformaciones en los márgenes del Urumea impulsaron al Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa a encargar un trabajo de documentación y catalogación del patrimonio cultural de la zona que llevaron a cabo Asier Agirresarobe, Josu Tellabide y Ondartez S.L. (Beatriz Herreras y María Jose Sagarduy). Este trabajo entregado en 2014, *Paisaje cultural de la cuenca del Urumea,* ha servido de base a esta exposición que se enmarca dentro del proyecto HidroLogikak2020.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea



25 **MARTXOA** MARZO | EU | **ES** 19:00

**EZEZTATUTA**
CANCELADA

**HITZALDIAK**
CONFERENCIAS

# Cumbres climáticas. ¿Y ahora qué?

**Hizlariak** Ponentes:

**Valvanera Ulargui, Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoaren zuzendari nagusia (Transizio Ekologikorako Ministeritza).**Directora de la Oficina Española de Cambio Climático (Ministerio de Transición Ecológica).

**Elena Moreno, Ingurumen sailburuordea (Eusko Jaurlaritza).** Viceconsejera de Medio Ambiente (Gobierno Vasco).

**Olga Martín, ACLIMAko Zuzendari nagusia, Euskadiko Ingurumen Industrien Kluster Elkartea.** Directora General de ACLIMA, Cluster de empresas medioambientales de Euskadi.

**Javier Andaluz, Ecologistas en Acción taldeko Klima Aldaketaren arduraduna.** Responsable de Cambio Climático de Ecologistas en Acción.

**2015eko abenduan Parisen egin zen Klimari buruzko Konferentzian, 195 herrialdek sinatu zuten klimari buruzko lehen akordio loteslea. Akordioak zubi lana egiten zuen gobernu guztien politika klimatikoen eta mendea amaitu aurretik egon beharreko neutraltasun klimatikoaren artean. Baina orain arte herrialde ezberdinek hartutako neurriak planetak jasaten duen berotze globala geldiarazteko nahikoak ez direla adierazten ari da.**
**Azken Munduko Goi-Bilera Madrilen egin da, iazko urte amaieran. Agora honetan Goi-bileran egindako foroetan eta bileretan parte hartu duten hainbat pertsona bildu dira.**
**Goi-Bileran gertatutakoari buruz zer iritzi duten jakiteko, zertarako balio izan duen jakiteko –eta zertarako ez–, zein diren orain aurrean ditugun erronka klimatikoak eta zer neurri hartu beharko liratekeen gonbidatuak konprometituta dauden maila eta esparru guztietan... Haiekin gai horiei guztiei buruz hitz egin ahal izango dugu.**

En la Conferencia sobre el Clima celebrada en París en diciembre de 2015, 195 países firmaron el primer acuerdo vinculante sobre el clima. El acuerdo tendía un puente entre las políticas climáticas de todos los gobiernos y la neutralidad climática que debe existir antes de finalizar el siglo. Pero las medidas adoptadas hasta ahora por los diferentes países se están demostrando como insuficientes para frenar el calentamiento global que sufre el planeta.
La última Cumbre mundial se ha celebrado en Madrid a finales del año pasado. En este Ágora se ha reunido a un plantel de personas que han seguido y participado en diferentes foros y reuniones celebradas durante el desarrollo de la Cumbre. Con ellas podremos conversar para conocer sus opiniones sobre lo acontecido en la Cumbre, para qué ha servido, -y para qué no-, cuáles son los retos climáticos a los que ahora nos enfrentamos y qué medidas se deberían tomar en los diferentes niveles y ámbitos en los que están comprometidas las personas invitadas.

**ANTOLATZAILEAK: Cristina Enea Fundazioa, Donostiako Udala eta San Telmo Museoa**
ORGANIZA: Fundación Cristina Enea, Ayuntamiento de San Sebastián y Museo San Telmo

**LEKUA** LUGAR: **San Telmo Museoa** Museo San Telmo

# Animales climáticos

## **Hizlaria** Ponente: **Andoni Luis Aduriz**

**Klimak eratzen du gure ingurune geografikoa, eta eragina du jaten dugun horretan, nola jaten dugun, nola janzten garen... baina, funtsean klimarekiko sentikorrak garen izakiak garenez, eragina du, halaber, nola sentitzen garen, nola pentsatzen dugun, nola erlazionatzen garen... Agora honetan, Andoni Luis Adurizekin hitz egin ahal izango dugu klima-aldaketari buruz duen bere ikuspegi partikularrari buruz.**

El clima configura nuestro entorno geográfico e influye en lo que comemos, cómo lo comemos, cómo nos vestimos… pero como seres esencialmente sensibles al clima, también influye en cómo nos sentimos, cómo pensamos, cómo nos relacionamos… En este Ágora podremos conversar con Andoni Luis Aduriz sobre su particular visión del cambio climático.

**ANTOLATZAILEAK: Cristina Enea Fundazioa, Donostiako Udala eta San Telmo Museoa**
ORGANIZA: Fundación Cristina Enea, Ayuntamiento de San Sebastián y Museo San Telmo

**LEKUA** LUGAR: **San Telmo Museoa** Museo San Telmo



**Argazkia** Fotografía: **Oscar Oliva**

29 MARTXOA MARZO | EU | ES

11:30

**ATZERATUTA**
APLAZADA

**IKASTARO ETA TAILERRAK**
CURSOS Y TALLERES

# Orain hotz, orain bero; Planeta dago ero!

**Familientzako jarduera berezi honetan, guztien ahotan dagoen ingurumen erronka hobeto ezagutzeko aukera izango dute gaztetxoek eta baita helduagoek ere. Bertan, Klima-Aldaketaren negazionisten argudio nagusiak gezurtatzen saiatuko gara modu atsegin eta dibertigarrian, esperimentu eta hainbat saiakeraren bidez, eta munduko txoko desberdinetako migratzaile klimatikoen azalean jarriko gara. Asteklima Euskadiko Klima Aldaketaren Astearen barruan txertatuko jarduera.**

En esta actividad especial dirigida a las familias, los jóvenes y también los más mayores tendrán la oportunidad de conocer mejor el reto medioambiental que está en boca de todas las personas. En ella trataremos de desmentir de forma amena y divertida los principales argumentos de los negacionistas del Cambio Climático, a través de diferentes experimentos y actividades manipulativas, poniéndonos en la piel de los migrantes climáticos de diferentes rincones del mundo. Actividad enmarcada dentro de la Semana de Cambio Climático de Euskadi, Asteklima.

---

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

---

**ADINA** EDAD: **+7 urte** años

---

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**

---




ASTEKLIMA 2020
Euskadiko Klima Aldaketaren Astea
Semana del Cambio Climático de Euskadi

# Orientazio jarduerak
## Actividades de orientación

**Gipuzkoako Orientazio Taldearekin antolatutako jarduera hauetan, orientazio kirola zer den eta nola praktikatzen den erakutsiko dugu. Hasieran, partehartzaileek mapa eta iparrorratza erabiltzen ikasiko dute. Ondoren, bai bakarka edo taldeka, mapa batekin lagunduta bakoitzak bere abilezia jarri beharko du praktikan zailtasun ezberdineko ibilbidea burutzeko helburuz. Jarduera haur, familia, gazte zein helduentzat zuzendua dago.**
**Hiru egun desberdinetan, hiru gune desberdinetan ospatuko dira jarduera hauek eta bakoitzean tipologia desberdinak landuko dira. Arropa erosoa, motxilatxo bat urarekin eta gogo asko eramatea gomendatzen dugu. Ez da beharrezkoa iparrorratza eramatea, baina edukiz gero ekarri daiteke arazorik gabe.**
**Datak eta xehetasunak ondorago orrietan.**

En esta actividad organizada con el Grupo de Orientación de Gipuzkoa mostraremos qué es el deporte de orientación y cómo se pone en práctica. Al principio, las personas que participen aprenderán a utilizar el mapa y la brújula. A continuación, tanto individual como colectivamente, cada participante deberá poner en práctica sus habilidades con el objetivo de llevar a cabo un recorrido de diferente dificultad ayudados por un mapa. Esta actividad está dirigida a niñas/os, familias, jóvenes y adultas/os.
Estas actividades se celebrarán en tres días diferentes, en tres espacios diferentes y en cada una de ellas se trabajarán diferentes tipologías. Recomendamos llevar ropa cómoda, una mochila con agua y muchas ganas. No es necesario llevar brújula, pero si la tienen se puede traer sin problemas.
Fechas y detalles en las siguientes páginas.



05 **APIRILA** ABRIL | **ELEBIDUN** BILINGÜE

10:00



# **Oinez!** ¡A pie!

**Egun honetan jarduera oinez egingo da. Ekintza Cristina Enea parkearen barruan dagoen Ingurumen Baliabideen Etxean hasi eta parkean ospatuko da. Egun honetako jardueran Cristina Enea parkeak duen natura eta fauna ezagutuko ditugu, txoko guztiak bisitatuz.**

Este día la actividad se desarrollará a pie. La actividad comenzará en el Centro de Recursos Medio Ambientales situado dentro del parque de Cristina Enea y se celebrará en el parque. En la actividad de este día conoceremos la naturaleza y la fauna del parque, visitando todos sus rincones.

---

**TAILERRA: Orientazio jarduerak**
TALLER: Actividades de orientación

---

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

---

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**

---



10:00

# Bizikletan!
# ¡En bicicleta!

**Egun honetan jarduera bizikletetan egingo da. Horregatik bizikleta eta kaskoa ekarri beharko dira. Urumea ibaiaren ertzetan garatuko da, Donostian zehar, eta gure ibaiak duen natura eta fauna eta haiek denboran zehar nola aldatu diren ezagutuko dugu.**

Este día la actividad se desarrollará en bicicleta. Por eso habrá que traer la bicicleta y el casco. Se llevará a cabo en las orillas del río Urumea, a lo largo de San Sebastián, y conoceremos la naturaleza y la fauna de nuestro río y cómo éstos han cambiado a lo largo del tiempo.

**TAILERRA: Orientazio jarduerak**
TALLER: Actividades de orientación

**TOPALEKUA: Mikel Laboa pasabidea**
LUGAR DE ENCUENTRO: Pasarela Mikel Laboa

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



28 **EKAINA** JUNIO | **ELEBIDUN** BILINGÜE

10:00



# **Oinez!** ¡A pie!

**Egun honetan jarduera oinez egingo da. Urumea ibaiaren ertzetan goaratuko da, Donostian zehar, eta gure ibaiak duen natura eta fauna eta haiek denboran zehar nola aldatu diren ezagutuko dugu.**

Este día la actividad se desarrollará a pie. Se llevará a cabo en las orillas del río Urumea, a lo largo de San Sebastián, y conoceremos la naturaleza y la fauna de nuestro río y cómo éstos han cambiado a lo largo del tiempo.

**TAILERRA: Orientazio jarduerak**
TALLER: Actividades de orientación

**TOPALEKUA: Cristina Enea parkeko sarrera nagusian**
LUGAR DE ENCENTRO: Entrada principal del parque Cristina Enea

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



# Art Break

***Art Break* sormen-tailerra da, eta arte-pentsamenduaren bidez testuinguru desberdinak elkartzean datza. Trinidad Irisarrik lanbidean duen hogeita hamar urtetik gorako esperientziatik abiatuta, sormen prozesuaren garapenaren gakoak parte-hartzaileei helaraztea da asmoa, ondoren lan arloan edo arlo pertsonalean aplikatzeko asmoarekin.**
**Prozesu artistikoaren balioak transmititzea, askatasuna, umiltasuna eta benetakotasuna, izango dira helburu nagusiak. Eta erronka da taldea indartzea eta suspertzea, giro lasai, informal eta ludiko batean. Sormenak bizitzako edozein esparrutan parte har dezake, edo ez, baina inoiz ezin da falta artearen alorrean. Angelu horretatik landuko dugu, artea izango da gure laborategia.**

*Art Break* es un taller creativo que consiste en unir contextos diferentes entre sí a través del pensamiento artístico. Desde la experiencia de Trinidad Irisarri de más de treinta años en la profesión, la intención es transmitir a los y las participantes las claves del desarrollo del proceso creativo, con la intención de aplicarlo después en el ámbito laboral o personal.
Transmitir valores como la libertad, la humildad y la autenticidad, es el objetivo principal. Y el reto es potenciar y estimular al grupo, en un ambiente relajado, informal y lúdico.
La creatividad puede participar en cualquier ámbito de la vida, o no, pero nunca puede faltar en el arte. Desde este ángulo es desde donde se trabajará, el arte será nuestro laboratorio.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

**ADINA** EDAD: **Helduentzako jarduera** Actividad para personas adultas

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



28 APIRILA ABRIL | EU I ES
05-12-19-26 MAIATZA MAYO | 17:00>19:00

29 APIRILA ABRIL | EU I ES
06-13-20-27 MAIATZA MAYO | 17:00>19:00

# Baratze ekologikoa
# Huerto ecológico

**"Oporrak izan eta hamar egunez zoriontsu izan, baratze bat izan eta bizitza osorako zoriontsu" baserriko jendearen esana da. Baratze batek lurreko fruituak emateaz gain, beste hainbat onura ere eskaintzen dizkigu, terapeutikoa eta lasaigarria baita. Tailer honetan, urte osoan zehar baratze ekologikoa mantentzeko trebetasunak eta oinarrizko ezaguerak erakutsiko dira.**

"Las vacaciones dan diez días de felicidad, una huerta da felicidad para toda una vida" es un dicho de los baserritarras. Además de ofrecer los frutos de la tierra, una huerta nos proporciona muchos otros beneficios, ya que es terapéutica y relajante. En este taller se enseñarán habilidades y conocimientos básicos para mantener un huerto ecológico durante todo el año.

**LEKUA** LUGAR: **Lugaritz Kultur Etxea**Casa de Cultura Lugaritz

**PREZIOA** PRECIO: **35€**

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.donostiakultura.eus**



etxEKOlanda

09 **MAIATZA** MAYO | **EU** | ES | 17:00>18:30

07 **EKAINA** JUNIO | EU | **ES** | 11:30>13:00

# **Bizipenen mapa** Mapa de vivencias

**Cristina Eneako parkean ibiltzea ezustez betetako abentura bikaina izan daiteke, bertako txoko ezkutuak aurkitzeko gogoa besterik ez duzu behar! Familiak, iparrorratzak baliatuz, parkean barrena ibiliko dira, bertako zuhaitz eta animalia ibiltariei buruzko istorioen berri izango dute eta etorkizuneko esploratzaileentzako mapa berri bat sortu beharko dute.**

Recorrer el parque de Cristina Enea puede ser una gran aventura llena de sorpresas, ¡sólo hacen falta ganas de descubrirlas! Las familias, ayudadas por brújulas, recorrerán el parque, conocerán las historias que rodean a los árboles y animales más viajeros del parque y tendrán que crear un nuevo mapa para los futuros exploradores.

**TOPALEKUA: Cristina Enea parkeko sarrera nagusian**
LUGAR DE ENCUENTRO: Entrada principal del parque Cristina Enea

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE**: www.cristinaenea.eus**



20/23 **MAIATZA** MAYO | EU | **ES**

19:00 > 21:00

**IKASTARO ETA TAILERRAK**
CURSOS Y TALLERES

# Curso Wikiloc (GPS) para ciclistas y caminantes

**Kalapiek, Cristina Enea Fundazioaren laguntzarekin, Wikiloc aplikazioa erabiltzen ikasteko lau orduko ikastaroa eskainiko du txirrindulari eta oinezkoentzat. Programa honek mugikorraren GPSa erabiltzen du, une oro orientatzen laguntzeko: non gauden, nondik goazen, zenbat falta den, zer desnibel dagoen, ibilbide hori egin zuen norbaitek zer argibide eman dituen ... Harekin ia edozein lekutara joan daiteke, nahiz eta ingurua ez ezagutu, bost milioi eta erdi erabiltzaileetatik baten bat handik handik ibili delako eta haien ibilbideak eta argibideak erabil daitezkeelako. Ikastaroa jarraitzeko, honako hauek behar dira:**

- **Beharrezkoa: Smartphonea (telefonoa internetarekin). Ikastaroa smartphonean datorren GPSa erabiltzera zuzenduta dago, ez Garmin, Magellan eta abar GPSetarako.**
- **Hautazkoa: ordenagailua edo tableta.**

Kalapie, con la colaboración de Fundación Cristina Enea, ofrecerá un curso de cuatro horas para aprender a usar la aplicación Wikiloc para ciclistas y caminantes. Éste es un programa que usa el GPS del móvil para ayudarnos a orientarnos en todo momento: dónde estamos, por dónde ir, cuánto falta, qué desniveles hay, las indicaciones que ha realizado alguien que realizó ese recorrido… Con él se puede ir a casi cualquier lugar aunque no se conozca, porque alguno de los cinco millones y medio de usuarios habrá andado por allí y se pueden usar sus recorridos e indicaciones.
Para seguir el curso se necesita:

- Necesario: Smartphone (teléfono con internet). El curso está dirigido a usar el GPS que viene en el smartphone no para un GPS Garmin, Magellan, etc...
- Optativo: ordenador o tableta.

---

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

---

**IRAKASLEAK** PROFESORES**: Carlos Pérez Olozagak - Josean Meoqui**

---

**PREZIOA** PRECIO**: 15€**

---

**ADINA: 10 urtetik gorakoentzat**
EDAD: A partir de los 10 años

---

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**

---

# Bihotz Inguru baso txangoak
# Excursiones por el bosque

**Gero eta gehiago dira haurrak naturarekin harremanetan hezteak beraien garapenerako duen garrantzia azpimarratzen duten ikerketak. Hori dela eta, Bihotz Inguru-Baso-Eskola elkartearekin elkarlanean, familia osoarentzako irteerak burutuko ditugu. Ibilbide hauen helburua Donostialdean ditugun baso eta natur gune desberdinak ezagutzeko aukera eskaini eta naturarekin harremana sustatzea da. Haurren behar eta gaitasunei hobeto egokitzeko, aurten bi adin talderentzat egokitu ditugu ibilbideak, haur hezkuntzakoentzat alde batetik eta lehen hezkuntzakoentzat bestetik.**

Cada vez son más los estudios que demuestran la importancia de educar en contacto con la naturaleza y los beneficios que esto tiene para el desarrollo infantil. Junto con la asociación Bihotz Inguru-Baso-Eskola, realizaremos diferentes excursiones para toda la familia, con el objetivo de conocer distintas zonas naturales de nuestro entorno y fomentar el contacto con la naturaleza. Este año, hemos decidido separar las excursiones por edades para poder adaptarlas mejor a las necesidades y capacidades de los participantes por lo que algunas estarán dirigidas a niños y niñas de educación infantil y otras a los de primaria.

**LEKUA** LUGAR: **Arditurri (Oiartzun)**
**3-6 urte** años

25 **APIRILA** ABRIL | 10:30>13:30

**LEKUA** LUGAR: **Jaizkibel**
**6-12 urte** años

23 **MAIATZA** MAYO | 10:30>14:00

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **bihotzinguru@gmail.com**



26 **APIRILA** ABRIL | EU | **ES** 11:30

17 **MAIATZA** MAYO | **EU** | ES 11:30



# Cristina Eneako lau urtaroak: udaberria
## Las cuatro estaciones de Cristina Enea: primavera

**Cristina Enea parkeko zuhaitz eta landareak urtean zehar aldatuz doaz, eta urtaro bakoitzak badu bere berezitasuna eta bere xarma. Udaberrian esnatuz doa natura neguko lozorroa atzean utzita. Zuhaitzek hosto xamur eta berde dizdiratsuak estreinatzen dituzte, tenperatura epelaz eta eguzki izpi goxoez gozatzeko prest. Parkea energiaz gainezka azaltzen zaigun garai honetan, txorien kortejuzko kantuek eta koloretako loretxoek parkea bizi-bizi dagoela iragartzen digute. Parketik paseoa eman ondoren, naturak udaberrian eskainitako "oparitxoak " erabiliz eskulan eder bat sortuko dugu.**

